

OIANGUREN AISIGUNEA ▶

Inpaktuko azterketaren zain, proiektuan aldaketak egon daitezkeela esan du Udalak

Plan Berezia onartu bitartean ezin direla obrak hasi onartu du Arizmendik; Oiangu Bizirik plataformak egitasmoa bertan behera uzteko eskatu du

MAIDER DEL OLMO

Udalak Arau Subsidiarioak aldatu egingo ditu Oianguko proiektuak aurrera egin dezan, egoerak hala eskatzen badu. Joxe Arizmendi alkateordeak eman zuen horren berri here-negun. Ordiziako Udalak deituta, Oianguren Aisigunea egitasmoa aurkeztu zuten ostegun iluntzean. Udaletxea jendez goraino bete zen, ia hiru ordu iraun zuen saioak. Proiektuaren aldekoek eta aurkakoek euren posturak defenditu zituzten. Luze eztabaidatu zen gaiaz. Aurkezpeneko mahaiaren honako hauek izan ziren: Joxe Arizmendi alkateordea, Domingo Merino Fraisoro laborategiko zuzendaria, Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko kirol zuzendaria eta Iñaki Aierbe Ikena enpresako ordezkaria. Herritarrei proiektuak zertan datzan azaltzea zen aurkezpenaren helburua. Udalaren esanetan. Eta baita herritarren zalantzak argitzea ere.

Joxe Arizmendi alkateordearen arabera, «herrian sortu diren gaizki ulertuak» argitu nahi dituzte. Arizmendik Oianguko proiektuaren alde hitz egin zuen, haren arabera, «aurrerapauso handia» izango da Ordiziarentzat: «Alde onak eta txarrak ditu. Onak gehiago direla, hala ere, uste dugu». Manolo Iturrioz zinegotzi jeltzaleak gehitu zuenez, «ziur gaude egin nahi dugunaz eta ondorio guztiekin eman dugu kontzesioa». Oiangu Bizirik plataformari erantzunez, Udalak aitortu du Plan Berezia onartu aurretik ezin dituztela obrak hasi. Plan Bereziari eta ingurumen azterketari itxarotea geratzen da, beraz, Arizmendiren arabera. Informe hori eskuetan dute



Ezkeretik, Osinalde, Ugarteburu, Arizmendi, Merino eta Aierbe, herenegun udaletxean. MAIDER DEL OLMO

nean ikusiko dute zein bide jarraitu.

Oianguren Aisigunea egitasmoaren helburua, funtsean, «zerbitzua hobetzea» da. Arizmendiren hitzetan, «orain arte

uda partera mugatzen zen erabilera. Parkera jendea urte osoan joatea nahi dugu. Asko izan dira urte haueetan gure eskuetatik pasatu diren proiektuak baina orain arte ezin izan

ditugu garatu. Bide berriak zabaldu nahi ditugu orain». Parkeak azken urteotan izandako bilakaera gogoratu zuen, bide horretan Oianguko egitasmoa «pauso bat gehiago» dela esan

«Proiektua onartu gabe dago oraindik»

Oiangu Bizirik plataformak gogoratu zuenez Oianguren Aisigunea proiektua behinbetiko onartu gabe dago oraindik. Inpaktu azterketa egin gabe dago, eta hori gabe Plan Bereziak ez dago. Gipuzkoako Foru Aldundiaren onespina behar du egitasmoak. Horregatik, oraindik onespina eman ez zaiolako, plataformari ez zaio ondo iruditu Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko

kirol zuzendaria Udalak deituta aurkezpenean izatea. Ugartebururi Foru Aldundiko ordezkari gisa ala norbanako bezala, ea aurkezpena nola etorri zen galdetu zioten. «Kirol ordezkari gisa», erantzun zuen. Behin eta berriz errepikatu zioten galdera plataformakoek, baina ez zuen ezer gehiagorik esan. Ugarteburuk aretoa utzi zuen handik gutxira, «beste zeregin batzuk» zi-

tuela esanda. Bestalde, auzkenezpenean Domingo Unanue Fraisoroko laborategiko zuzendariak ere hitz egin zuen. Unanuek herritarrek lasaitu nahi izan zituen. Jendearen galderei erantzunez esan zuenez, «bermatuta dago inpaktu azterketaren egiazkotasuna, alde horretatik, lasai». Informea lan serioa izango dela adierazi zuen, eta ez dagoela arrazoirik zalantza egiteko. ◀

JOXE ARIZMENDI
ALKATEORDEA

«Oianguren bilakaeran honako hau pauso bat gehiago da, eta herriarentzat ona da gure ustez»

EDURNE HUESA
OIANGU BIZIRIK

«Errekurtsoa aurkeztu dugu, eta behar izanez gero prozesu administratiboari ekiteko prest gaude»

zuen Joxe Arizmendi alkateordeak.

Bestalde, Niko Osinalde Goiturreko zuzendaria «aisi turismoa» bultzatzearen alde agertu zen. «Balorazio oso positiboa» egin zuen proiektuaz eta bere babes osoa azaldu zion: «Goierri bostari ugari erakarriko ditu, eta turismoarentzat ona da hori». Ikena enpresako Iñaki Aierberen ustez, «harribitxia» da proiektua eta ezin da aukera galtzen utzi. Proiektuaren hainbat xehetasun eman zituen Aierbek.

Proiektuaren aurka

Oiangu Bizirik plataformak egitasmoaren kontra agertu zen. Udalarik proiektua bertan behera uzteko eskatu zion. Oianguk «guztiona eta guztiontzat» izan behar duela esan zuten, haren izaera publikoa nabarmenduz. Epaitegian errekurtsioa aurkeztu dutela gogoratu zuten. Prozesu administratiboari ekiteko ere prest agertu dira. Jada 2.600 ordiziarren sinadurak bildu dituzte, eta jarraitu egingo dute lan horretan. Gaur eta bihar, Erdi Aroko azokan, mahaiaik jarriko dituzte sinadurak biltzeko. Bestalde, ekainaren 4an, Oiangu Eguna ospatuko dute, ingurumenaren nazioarteko egunean.

Herritarrek, bestalde, egitasmoari buruzko erreferenduma eskatu zuten. Udalak eta Oiangu Bizirik plataformak erabakiko lukete galdera nola egin, proposamenaren arabera. Udalak ez du, oraino, aukerarik ikusten galdeketa egiteko, Arizmendiren esanetan.

iragarki laburrak ▶

LAN-POSTUAK

Administrari laguntzaileak.

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan: 943 22 46 85.

Administrari laguntzaileak. Laster sartzeko. Hernani, Usurbil, Beasain,

Zizurkil, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Altzo, Mendaro, Anoeta. 943224685.

Harrengariekak, telefonistak.

Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. 943 22 46 85.

Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak.

tabernariak.

Laster sartzeko: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu: 943 22 46 85.

Peoiak. Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona.

943 22 46 85.

Gidariak.

Hurrena sartzeko: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia. Informatu: 943 22 46 85.

Kutxak eta banketxeak. Lekuak libre, laster sartzeko. 943 22 46 85.

Udaltzainak. 25 leku libre

udaletxeetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa: 943 22 46 85.

SALGAI

Etxea. Araman pisua salgai. 685 720 753.

Segadora. 659 13 20 94.